

EUZKO GOGOA

Euzko Gogoa : ara Guatemala'n euskaldunek argitarazten duten aldizkari ederra. Dena euskeraz egiña. Zaitegi, idazle eta olerkari garbi eta jakintsua du bere zuzendari.

Idazki txukun eta ongi apainduak azaldu ditu bere agertaldietan (lenengo seiak bakarrik ikusi ditugu).

Etxetxo'k, Udalaizpe'k, Izurtza'k eta Ibartzabal'ek gure olerkari buruz agertu dituzten edesti-izpiak ; Argarate'k langilliei egiten dien oyuak ; Andima'ren irakurgai mamitsuak ; Orixe'ren irakaspén bikañ eta kantu atsegingarriak ; Zaitegi'ren olerki eta irakasaldi eztitsu eta gogoangarriak ; Mirande'ren, aldiz legun eta aldiz zorrotz diren abotsak ; Amayur'en edesti-lanak ; Monzon'en lerro goxoak ; Harimbat'en gogoeta sakonak eta Jemein'en ekinaldi sustraitsuak atsegiñez irakurri ditugu.

Orrelako aldizkari baten bearra ba-genduen eta agertu zaigu. Ongi-etorririk beroena damakiogu.

Entzun zagun bere deia : « Euskel-idazle oro betoz, bakoitza bere kizkia ekerki. Kizki orori, biotz-aundi izaki, beti aurkituko diogu ezti tantaren bat. »

Jarraiozue, anaiok, bide orri. Gu ere, urrundik bederen, zuen eluausoan joan gindezke, asmoz bezin azkar egitez baginake. Euskerak ikasgai asko dakartzkigu ; badu barnean zer ikusi eta zer ikasi ; bera erabiltzea ongi zaigu eta euskeraz mintzatzea eta idaztea eginbide degu. Zuen ixpillua ez dedilla sekulan itzali, ez belundu.

Ikastei'ko J.